

HAUTESKUNDEAK. Gaur bukatuko da kantonamenduko hautagaiak aurkezteko epea

Laborantzatik arrantzara, euskal erakundeen beharra dakusa Colinak

Laster «posta kartak egiteko ere» arrantzale aski ez dela izanen esan du ABko hautagaiak



Abertzaleen Batasuneko hautagaia Robert Alvarez eta Gorka Cuevas arrantzaleekin izan zen portuan.

Hur Gorostiaga | DONIBANE-LOHIZUNE

Donibane-Lohizuneko kantonamendurako hauteskundearen kari, «Ipar Euskal Herriak berezko erakundeak izateko premia larria» duela azpimarratu zuen Mertxe Colina Abertzaleen Batasuneko hautagaia, Donibane-Lohizuneko arrantzaleekin batera. Donibaneko portuaren gainbehera adibidetzat hartuz —1200 arrantzaletik 300 izatera pasa da joan den mende bukaeran—, tokiko egiturarik ezak tokiko ekonomia eta aberastasunen kudeaketan sortzen duen eskasia salatu zuen.

«Berezko egiturarik ez izanik, gaineratzen diren bertze egitu-

MERTXE COLINA

ABko hautagaia Donibanen

«Portua, Donibaneko bizitzaren ardatz nagusia, turismorako bitxikeria bilakatu nahi du auzapezak»

ren arteko kohesio falta izugarria ageri da; hala nola Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, Akitania, Estatu eta Bruselaren artean».

Lapurtar arrantzaleen geroa Gipuzkoa eta Bizkaikoari zuzenki loturik dagoela adierazi

zuen, eta «Udalbiltzak hurbiletik aztertu behar du», gaineratu zuen. «Orain arte bezala segituz, Donibane-Lohizuneko portuak posta kartan argazkiak egiteko ere ez du balioko», agertu zen haserre, eta «Donibaneko bizitzaren ardatz nagusia Michele Alliot-Marie auzapezak turismorako bitxikeria bezala erabiltzea» salatu zuen.

Kantonamenduko hautagaiak aurkezteko epea, gaur

Gaur eguerdian bururatuko da Ipar Euskal Herrian erreberituko diren 11 kantonamenduetan lehiatuko diren hautagaien izenak aurkezteko epea.

Angelu hegoaldea, Miarritze

Angelun hirugarren zerrenda bat aurkeztuko dute eskuindarrek

Robert Villenave Angeluko auzapez zentristak abertzaleekin egin duen aliantzaren salatzeke, Jean-Claude Lamoure eskuindarrek bere zerrenda propioa aurkeztu du Angelun. Lamouren erraetan, «zerrenda apolitikoa» da. Andre Graciannette kontseilari nagusi ohiak lagundu du zerrenda sortzen, eta argiki agertu du Villenaveren akordioak duela tratatzen.

Cap-Vivre Ensemble taldeak abertzalerik ez dagoen zerrenden alde bozkatzera deitu du

Cap-Vivre Ensemble talde jakobino antiabertzaleak hautagai abertzaleak dauden zerrendak ez bozkatzeko deia egin du, «demokraziari bizkar ematen dioten separatistak» daudela argudiatu. Ildo horretatik, Colette Capdevielle Baionako sozialista, Robert Villenave angeluar zentrista eta Didier Borotra Miarritzeko auzapez zentrista «separatisten kolaboratzaile» direla argudiatu du elkarteak.

Ekialdea, Donibane-Lohizune, Hendaia, Uztaritze, Ezpeleta, Baigorri, Amikuze, Bidaxune, Hiriburu eta Mauleko kantonamenduetako hautagaiak Paueko Prefeturan utzi beharko dituzte betebeharreko administrazio paperak.

EUSKAL PRESOK. Gaur kontzentrazioak izango dira instituzioetan, eta bihar manifestazioak herrietan

Iñaki Uriarte | BILBO

Euskal presoaren alde egiten ari diren kontzentrazio eta mobilizazioetan parte hartzeko deia berretsi zieten herritarrei Jone Goirizelaia eta Ibon Arbuluk atzo.

Euskal Herritarrok taldeko parlamentariak gogorarazi zuen iaz 700 atxilotu izan zirela, horietatik 255 legedi antiterroristaren pean. Tortura iraganeko gauza izatetik urrun dagoela iritzi zion Goirizelaia, 2000 urtean 77 atxilotuk torturak jasan izana salatu baitzuten.

Euskal presoaren alde egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia zabaldu du EHk

Testuinguru horretan, EHko burukideek azaldu zuten euskal presoaren eskubideak ere errotik baztertuta daudela. «Euskal Herriak hartu zuen erabakia euskal presoaren eskubideak errespetatzeko, baina eskari horren aurrean mesprezua besterik ez dago», salatu zuen Jone Goirizelaia. Ildo berean, Espainiako Gobernuak tortura-

tzaileak indultatu egin izana ezetsi zuen.

«Burujabetza da bakea»

Euskal Herritarrok taldeko burukideek EAJ eta EAK «marko honen defentsan» jarraitu izana kritikatu zuten. Alde horretatik Ibarretxek Kursoalean deitutako ekitaldian biktima jakin batzuk bakarrik gogoan hartu izana

na eta presoaren eskubideekiko aipamenik eza gaitzetsi zuten. «Lurraldetasuna ez bada kontuan hartzen, preso eta errepre-saliatuak, torturatuak ez badira kontuan hartzen, ezin izango da aurrera atera Euskal Herrirako dagoen proiektua», ohartarazi zuen Goirizelaia. Alde horretatik bakerako burujabetza ezinbestekoa dela esan zuen EHko parlamentariak.

Gaur eguerdian, hain zuzen, Bilbo, Iruñea, Donostia eta Gasteizko udaletxeetan presoaren aldeko kontzentrazioak egingo dituzte.

NORTASUN AGIRIA

Ofizialtasuna bideratzeko eskatu dio Bai Euskal Herriari-k Udalbiltzari

Erredakzioa | IRUÑEA

Bai Euskal Herriari plataformak euskal nortasun agiriaren alde 125.000 sinadura baino gehiago bildu dituela gogorarazi, eta ofizialtasuna bideratzeko eskatu die Udalbiltzaren aldeko hautetsiei. Gaia etzi Donostiako Kursoalean egingo duten batzarraren gai zerrendan sartzeko eskatu du.

Iban Iza eta Aitziber Perez de Karkamo plataformako kideek atzo Iruñean emandako prentsaurrekoan azaldu zuten, «sinadura bilketa guztiz arrakastatsua izan da, inoiz Euskal Herriaren eginiko sinadura bilketarik erraldioena izan baita».

Jada 125.211 sinadura bildu dituzte. Plataformako kideen aburuz, horrek adierazten du «Euskal Herriaren badela oinarri sozial anitza eta zabala herri eta herritar gisa dagozkigun eskubideak gauzatzeko prest dagoena», gaineratu dute.

Horregatik Bai Euskal Herriari herri ekimenak Euskal Herriartasun Nazio Agiriaren aldeko eskaera Udalbiltzaren larunbateko batzarraren gai zerrendan sartzeko eskatu du. «Eskara aztertu, eztabaidatu eta, batik bat, hari konponbidea eman diezaiola eskatzen diogu», esan zuen Izak.

Praktikara eraman

Bai Euskal Herriari plataformak Udalbiltzak Euskal Herriartasun Nazio Agiria sortu eta ofizialtzeko eskaera gauzatzeko garaia iritsi dela uste du. «125.211 euskal herritarrek egin duten eskariari Udalbiltzak modu praktikoan erantzutea, nahi duten nortasun agiria izan dezaten eta atzerritar senti ez daitezen Euskal Herriari», eskatu zuten.

«Euskal herritarrok paperik gabeko herritarrak izateari utz diezaiogun. Euskal herritarrok geure herrian bertan atzerritar senti ez gaitzen beharrezkoa dugu euskal nortasuna», erantsi zuen Izak agerraldian.